

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

1124

EBAZPENA, 2024ko otsailaren 20koa, Trafiko zuzendariarena, 2024. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko trafikoa arautzen duten neurri bereziak ezartzeko dena.

Urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, 18. artikuluan ezartzen duenaren arabera, trafiko arloko agintaritzak dauka trafikoa erregulatzeko neurri bereziak hartzeko ahalmena, zirkulazio segurua eta arina bermatzeko beharrezkoa denean, edo ingurumenearekin lotutako arazoak daudenean. Azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak, Zirkulazio Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, besteak beste, 37 eta 39. artikuluetan neurri horietako batzuk zehazten ditu eta horiek hartzeko prozedura arautzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) eremuan, Trafikoko zuzendariari dagokio arestion aipatu diren neurriak hartzea, arau hauek ezartzen dutenaren arabera: urriaren 15eko 3256/1982 Errege Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoari trafikoari eta ibilgailuen zirkulazioari buruzko estatu-legeriaren betearazpena transferitzen dionak, bere eranskinaren B.1.g) atalean; eta urtarriaren 19ko 6/2021 Dekretuak, Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, 17.3.d) artikuluan.

Ebazpen honen bidez trafikoa arautzeko neurri bereziak ezarri nahi dira, hainbat ibilgailu edo ibilgailu-taldetarako, bide-segurtasuna, mugikortasuna eta zirkulazioaren arintasuna eraginda gerta daitezkeen egun zehatzetan. Egunduek aukeratu dira hainbat faktore kontuan hartuta, esaterako EAEko jaiegunen egutegia, asteburuak, oporren hasierako edo amaierako aldiak, jai-zubiak edo zirkulazioaren gainean eragina izan dezaketen bestelako inguruabarrak.

Hori guztia dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Zirkulazio-murrizketak.

2024. urterako EAEn, hemen zerrendatzen diren zirkulazio-murrizketak ezartzen dira:

1.– Kirol-probak, bizikleta-martxak eta bestelako ekitaldiak.

Azaroaren 21ean 1428/2003 Errege Dekretuaren bidez onartutako Zirkulazio Erregelamendu Orokorrak 55. artikuluan eta II. eranskinean xedatzen duenaren arabera, Trafikoko Lurralde arduradunek ez dute inolako kirol-probarik edo bestelako ekitaldirik baimenduko (lehiaketa izan ala ez izan), ezta horien aldeko txostenik emango ere, baldin eta kirol-proba edo ekitaldi horiek egiteko, ebazpen honen I. eranskinean zehaztutako egunetan eta orduetan, hiriarteko bide publikoetan, galtzadak eta bazterbideak bete behar badituzte.

Salbuespen gisa, honako kirol-proba, bizikleta-martxa eta bestelako ekitaldi hauek baimendu ahal izango dira:

– Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunak (UCI) edo horren antzeko nazioz gaindiko erakundeek antolatzen dituzten nazioarte mailakoak.

– Bi baldintza hauek batera betetzen dituztenak: irteerako edo itzulerako operazioengatik ibilgailu-intentsitate handia duten bideei ez eragitea eta, probara bertaratzeko nahiko agente egotea.

– Hauteskunde-prozesuekin bat datozenak, baldin eta bozkatzeko eskubidea bermatzen bada, hauteslekuetarako sarbidea erraztuz, eta probara bertaratzeko nahiko agente badaude.

2.– Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuak.

2.1.– Salgai Arriskutsuen Nazioarteko Errepide Garraioari buruzko Akordioaren (ADR) arabera, arriskuaz ohartarazteko arauzko panel laranja eduki behar dituzten ibilgailuek zirkulatzea debeatuta dago EAeko bide publiko guztietan, zirkulazioaren edozein noranzkotan, ondoko egun eta orduetan:

– Igande eta jaiegunetan (EAE osoan) 08:00etatik 24:00etara eta

– Jaiegunen bezperetan (EAE osoan), larunbatak ez badira, 16:00etatik 24:00etara.

Era berean, ibilgailu horiek ebazpen honen II. eranskinean jasotako zirkulazio-murritzapenen eraginpean egongo dira, salbu eta egunak igandeak, jaiegunak edo jaiegunen bezperak (larunbatak ez direnak) badira.

2.2.– Aurreko puntuan ezarritako debekuetatik salbu daude ebazpen honen III. eranskinean jasotzen diren salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuak, bertan xedatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

2.3.– Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek egin beharreko ibilbideak. Otsailaren 14ko 97/2014 Errege Dekretuak, Espainiar lurraldeko errepideetan zehar salgai arriskutsuen garraioak arautzen dituenak, 5. artikuluan ezartzen duenaren arabera eta Salgai Arriskutsuen Nazioarteko Errepide Garraioari buruzko Europako Akordioaren (ADR) arabera, salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek, ondoko ibilbide hauek erabili beharko dituzte:

A) Amaierako erabiltzaileei edo kontsumitzaileei banatzeko egiten diren joan-etorrietan: ibilbiderik egokiena erabiliko da, bide-segurtasunari zein trafikoaren arintasunari begira. Errepide arruntetan zehar ahalik eta distantziarik laburrena egingo da salgaia eman behar den lekuraino.

Biztanle-guneetatik kanpo ingurabiderik, saihebidetik edo biribilgunerik badago, nahitaez erabili beharko ditu. Horrelako aukera bat baino gehiago izatekotan, biztanle-gunetik urrutien dagoena erabili beharko da. Hirigunean zama-lanak egiteko soilik sar daiteke, eta betiere, salgaiak emateko lekutik hurbilen dagoen sarrera erabiliz, ezinbestekoren bat gertatu ezik.

B) Bestelako joan-etorrietan: joan-etorriaren jatorria eta helmuga Salgai Arriskutsuen Ibilbideen Sarearen –SAIS– barruan badaude (ebazpen honen V. eranskinean dago), salgai arriskutsuak daramatzaten ibilgailuek nahitaez erabili beharko dituzte beren ibilbideetan.

Joan-etorriaren jatorria edo helmuga (edo biak) SAISetik kanpo badaude, sare horretan martxaren noranzkoan eta hurbilen dagoen sarreratik sartzen uzten duten errepide arruntetatik egin beharko dira joan-etorriak, galtzada bakarreko bideetan egiten den ibilbidea ahalik eta laburrena izatea bermatze aldera. Arrazoi berbera dela bide, salgaien helmugatik martxaren noranzkoan eta hurbilen dagoen irteera erabiliko da SAISetik irteteko.

Hemen aipatu diren bideez bestelakoetan ibiltzeko, baimen berezia beharko da, ebazpen honen bigarren atalean xedatutakoarekin bat etorri emango dena.

SAISetik irten daiteke gidariaren ohiko bizilekura edo handik egindako joan-etorrietan, egunero edo asteroko atsedendialdiak egiteko edo egitetik, eta ibilgailua konpontzeko edo mantentzeko lanetarako, edo garraio-enpresa dagoen lekura sartzeko, betiere ADRn zehaztutako segur-

tasun- eta babes-baldintzak betetzen badira. SAIS uzten den kasu hauetan, gidariaren helmuga den tokitik hurbilen dagoen irteeratik irtengo da.

2.4.– Aurreko puntuetan xedatutakoa ez da aplikatuko, baldin eta zama mota, kopurua edo garraio mota dela-eta, salgai arriskutsuen garraioa ADRn jasotako salbuespenetakoren baten arabera egiten bada.

3.– Salgaien garraiorako ibilgailuak edo ibilgailu-taldeak, beren gehieneko masa baimendua (GMB) edo ibilgailu-taldearen gehieneko masa baimendua (ITGMB) 7.500 Kg-tik gorakoa denean.

3.1.– Ibilgailuaren GMB edo ibilgailu-taldearen ITGMB 7.500 kg baino gehiagoa bada, ibilgailu horiek zirkulatzeko debekatuta daukate, EAEko bide publikoetan, II. eranskinean jasotzen diren egun eta orduetan.

3.2.– Aurreko debekua ez zaio aplikatuko ebazpen honen IV. eranskinean jasotzen diren salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuen zirkulazioari.

4.– Zirkulazio baimen osagarria behar duten ibilgailuak (beren ezaugarri teknikoengatik edo garraiatzen duten zamaren ezaugarriengatik) eta zirkulazio baimen osagarria behar ez duten ibilgailu bereziak.

4.1.– Ibilgailuek, beren ezaugarri teknikoak edo garraiatutako zama direla-eta, lege ezarritako gehieneko masak edo neurriak gainditzeagatik zirkulatzeko baimen osagarria behar badute (abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak onartutako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren 14. artikulua), debekaturik izango dute bide publikoetatik zirkulatzeko, ondoren adieraziko diren egun eta orduetan:

– Igande eta jaiegunetan (EAE osoan) 08:00etatik 24:00etara eta

– Jaiegunen bezperetan (EAE osoan), larunbatak ez badira, 16:00etatik 24:00etara.

Era berean, ibilgailu horiek ebazpen honen II. eranskinean jasotako zirkulazio-murriztapenen eraginpean egongo dira, salbu eta egunak igandeak, jaiegunak edo jaiegunen bezperak (larunbatak ez direnak) badira.

4.2.– Zirkulazio baimen osagarririk gabeko obra eta zerbitzuetako edo nekazaritza-makinariako ibilgailu bereziei ebazpen honen II. eranskinean jasotako murrizketak aplikatuko zaizkie.

4.3.– Hala ere, murrizketok ez zaizkie aplikatuko IV. eranskinean aipatzen diren gaiak garraiatzen edo eginkizunak burutzen dituzten ibilgailuei.

5.– Murrizketa osagarriak.

5.1.– Zirkulazio Erregelamendu Orokorreko 37. eta 39. artikuluetan ezarritakoaren arabera, ezusteko kasuetan edo aparteko gorabeheren kasuan, zirkulazioa seguruagoa edo arinagoa izan dadin beharrezkoa denean, trafikoaren zaintzaz eta diziplinaz arduratzen den agintaritzaren agenteek zehaztuko dituzte murrizketok behar den denbora guztirako, eta, horretarako, beharrezko erabakiak hartuko dituzte.

5.2.– Gainera, meteorologia fenomeno kaltegarriak gertatzen direnean (elurra, izotza, ikuspen eskasa behe-lainoa dela-eta, edo haize bortitza...), ibilgailu zehatzei ezar dakizkiekeen zirkulazio-murriztapenak eragotzi gabe, 3.500 kilo baino gehiagoko GMB duten kamioiek, autobusek, autobus artikulatuek eta ibilgailu-taldeen bideko eskuineko erreitik joan behar dute nahitaez. Ezin izango dituzte aurreratu, ezta aurrea hartu ere, abiadura txikiagoan zirkulatzeko ibilgailuak, aurreko paragrafoan aipatutako 37. eta 39. artikuluetan adierazitakoaren arabera.

6.– Bideko obrak etetea.

Trafikoko operazio berezien egunetan eta ibilgailu asko batera mugitzen direnean trafikoak izaten dituen ezaugarri bereziak direla eta, trafikoaren arintasuna eta bide-segurtasuna hobetze aldera, Trafiko Zuzendaritzak eta eragindako bideen erakunde titularrak obrak eteteko koordinatuko dira VI. eranskinean ezarritakoaren arabera.

Hala ere, VI eranskinean jasotako egun eta orduetan obrak egin behar badira, bidearen erakunde titularrak obra horien berri eman beharko dio Trafiko Zuzendaritzari, behar bezala arrazoituta eta behar besteko aurrerapenez.

Bigarrena.– Baimen bereziak.

Ebazpen honetan mugatutako ibilbideetatik eta egunetan zirkulatzeko baimen bereziak eman ahal izango dira, bidaia bakar baterako edo aldi baterako. Baimen horiek emango dira premia nabarmena badago, ibilgailu eta aldi horietan zirkulatzeko ezinbesteko beharra dagoela justifikatu ondoren, Zirkulazio Erregelamendu Orokorren 39.5 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Baimen berezi horietan matrikula, ibilgailuaren edo ibilgailu-taldearen ezaugarri nagusiak, garraiatutako salgaia, eragindako bideak eta garraioaren baldintzak agertuko dira.

Hirugarrena.– Zehapenak eta kautelazko neurriak.

Ebazpen honetan dauden neurri arautzaileak ez betetzea zehatu egingo da, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bateginean xedatutakoaren arabera.

Era berean, trafiko-diziplina eta-zaintza arloko ardurak daukan agintaritzaren agenteek ibilgailua bidetik kendu eta agindutako lekuan gordailuan utzi ahal dute. Neurri horiek ezarri ahal dira ibilgailuak zirkulazioa oztopatzen edo zailtzen duenean edo zirkulaziorako arriskutsua denean, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bateginaren 105. artikulua ezartzen duenaren arabera.

Laugarrena.– Zirkulazioaren murrizketak salbuespenez kentzea.

Eusko Jaurlaritzako Trafikoko Zuzendaritzak ebazpen honetan ezarritako murrizketen eraginpeko ibilgailuei zirkulatzeko utzi ahal die. Neurri hori salbuespenez hartuko da, zirkulazioaren baldintzak aintzakotzat hartuta, eta, ondorioz, jarraibide egokiak emango zaizkio Ertzaintzari.

Neurri hori Trafiko Zuzendaritzaren webgunean argitaratuko da eta garraiolarien elkarte nagusiei edo horien antzekoei jakinaraziko zaie.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea eta indarraldia.

Ebazpen hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta zortzi egun baliodunera jarriko da indarrean eta 2024. urtean zehar egongo da indarrean. Dena den, indarraldia luzatuko da 2025. urterako trafikoa arautzeko neurri bereziak ezarriko dituen ebazpena indarrean sartu arte, I. eta II. eranskinetako data zehatzei dagozkien murrizketak izan ezik.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 20a.

Trafiko zuzendaria,
ESTIBALIZ OLABARRI GONZALEZ.

I. ERANSKINA

KIROL PROBAK, BIZIKLETA-MARTXAK ETA BESTELAKO EKITALDIAK

Hauteskunde-prozesuak, erreferendumak, plebisituak edo bestelako herri-kontsultak dauden egunetan, 00:00etatik 24:00etara, eta egun hauetan:

Eguna	Orduak	Lurraldeak
Martxoak 27	15:00 - 24:00	EAE
Martxoak 28	00:00 - 24:00	EAE
Martxoak 29	00:00 - 24:00	Bizkaia
Apirilak 1	00:00 - 24:00	EAE
Apirilak 29	00:00 - 24:00	Araba
Maiatzak 1	00:00 - 24:00	EAE
Maiatzak 8	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Maiatzak 9	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Maiatzak 20	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Ekainak 28	15:00 - 24:00	EAE
Ekainak 29	00:00 - 15:00	EAE
Uztailak 25	00:00 - 24:00	EAE
Uztailak 31	15:00 - 24:00	Bizkaia Gipuzkoa
Abuztuak 15	00:00 - 24:00	EAE
Abuztuak 18	00:00 - 24:00	EAE
Irailak 1	00:00 - 24:00	EAE
Urriak 31	15:00 - 24:00	EAE
Azaroak 1	00:00 - 24:00	EAE
Azaroak 11	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Abenduak 5	15:00 - 24:00	EAE
Abenduak 6	00:00 - 24:00	EAE
Abenduak 8	00:00 - 24:00	EAE
Abenduak 24	00:00 - 24:00	EAE
Abenduak 25	00:00 - 24:00	EAE
Abenduak 31	00:00 - 24:00	EAE
2025ko urtarrilaren 1a	00:00 - 24:00	EAE
2025ko urtarrilaren 3a	15:00 - 24:00	EAE
2025ko urtarrilaren 6a	00:00 - 24:00	EAE

II. ERANSKINA

SALGAIAK, ORO HAR, ETA SALGAI ARRISKUTSUAK

EAEko errepideetatik 7.500 kg baino gehiagoko GMBko ibilgailuek murrizketa hauen arabera zirkulatuko dute:

1.– Uda garaian.

Debekatuta dago 7.500 kg baino gehiagoko GMBko ibilgailuek zirkulatzea, ekainaren 1etik irailaren 1era arte.

a) Larunbatetako, igandeetako eta jaiegunetako:

Bidea	Izena	Hasierako KP	Amaierako KP	Noranzkoa	Ordutegia
A-8	Kantauriko autobidea	119,5	139,21 Kantabria	Kantabria	11:00 – 14:00
A-1	Madril-Irun	352 N-622 lotunea	336 Treviño	Burgos	11:00 – 14:00
A-1	Madril-Irun	329 Treviño	321 Burgos	Burgos	11:00 – 14:00

b) Igande eta jaiegunetan:

Bidea	Izena	Hasierako KP	Amaierako KP	Noranzkoa	Ordutegia
A-8	Kantauriko autobidea	139,21 Kantabria	119,5	Bilbao	16:00-22:00
A-1	Madril-Irun	321 Burgos	329 Treviño	Vitoria-Gasteiz	16:00-21:00
A-1	Madril-Irun	336 Treviño	352 N-622 lotunea	Vitoria-Gasteiz	16:00-21:00

2.– Data zehatzak.

Debekatuta dago 7.500 kg baino gehiagoko GMBko ibilgailuek zirkulatzea, bide publiko hauetan, hemen adierazitako egun eta orduetan:

1) 17:00etatik 21:00etara egun hauetan:

Ekainaren 21ean, uztailaren 24an, urriaren 31n, abenduaren 5ean eta 2025ko urtarrilaren 3an.

11:00etatik 14:00etara egun hauetan:

Uztailaren 25ean, azaroaren 1ean, abenduaren 6an eta 2025ko urtarrilaren 4an.

Bidea	Izena	Hasierako KP	Amaierako KP	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	119,5	139,21 Kantabria	Kantabria
N-634	Donostia / San Sebastián – Santander	107	136,140 Kantabria	Kantabria

2) 16:00etatik 21:00etara egun hauetan:

Azaroaren 3an, abenduaren 8an eta 2025ko urtarrilaren 6an.

Bidea	Izena	Hasierako KP	Amaierako KP	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	139,21 Kantabria	119,5	Bilbao
N-634	Donostia / San Sebastián – Santander	136,140 Kantabria	107	Bilbao

3) 17:00etatik 21:00etara egun hauetan:

Martxoaren 27an eta abuztuaren 14an.

10:00etatik 15:00etara egun hauetan:

Martxoaren 28an eta abuztuaren 15ean.

Bidea	Izena	Hasierako KP	Amaierako KP	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	119,5	139,21 Kantabria	Kantabria
N-634	Donostia / San Sebastián – Santander	107	136,140 Kantabria	Kantabria
AP-1	Burgos-Kantaurikoa	83,20	77,20	Burgos
A-1	Madril-Irun	352 N-622 lotunea	336 Treviño	Burgos
A-1	Madril-Irun	329 Treviño	321 Burgos	Burgos
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	55,77 Bizkaia	23,08 Bizkaia	Vitoria-Gasteiz
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	23,08 Araba	4,9 Araba	Vitoria-Gasteiz

4) 17:00etatik 21:00etara egun hauetan: uztailaren 31ean.

10:00etatik 15:00etara egun hauetan: abuztuaren 1ean eta 2an.

Bidea	Izena	Hasierako KP	Amaierako KP	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	119,5	139,21 Kantabria	Kantabria
N-634	Donostia / San Sebastián – Santander	107	136,140 Kantabria	Kantabria
AP-1	Burgos-Kantaurikoa	83,20	77,20	Burgos
A-1	Madril-Irun	352 N-622 lotunea	336 Treviño	Burgos
A-1	Madril-Irun	329 Treviño	321 Burgos	Burgos
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	55,77 Bizkaia	23,08 Bizkaia	Vitoria-Gasteiz
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	23,08 Araba	10 Araba	Vitoria-Gasteiz
N-622	Altube / Vitoria-Gasteiz autobia	7,6	4,5	Vitoria-Gasteiz

2024ko martxoaren 4a, astelehena

5) 16:00etatik 21:00etara egun hauetan:

Apirilaren 1ean.

Bidea	Izena	Hasierako KP	Amaierako KP	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	139,21 Kantabria	119,5	Bilbao
N-634	Donostia / San Sebastián – Santander	136,140 Kantabria	107	Bilbao
AP-1	Burgos-Kantaurikoa	77,20	83,20	Vitoria-Gasteiz
A-1	Madril-Irun	336 Trebiñu	352 N-622 lotunea	Vitoria-Gasteiz
A-1	Madril-Irun	321 Burgos	329 Trebiñu	Vitoria-Gasteiz
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	23,08 Bizkaia	55,77 Bizkaia	Bilbao
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	4,9 Araba	23,08 Araba	Bilbao

6) Bezperako 22:00etatik egun hautetako 22:00etara:

Apirilaren 1ean, maiatzaren 8an, 9an eta 20an eta azaroaren 11n.

Murriztapen honek mugaz haraindiko garraioari baino ez dio eragiten.

Bidea	Izena	Hasierako KP	Amaierako KP	Noranzkoa
AP-8	Kantauriko autobidea	100 Amorebieta	0 Frantziako muga	Behobia
GI-20	Donostiako saihesbidea	15,572 AP-8ko lotunea Aritzeta	0 AP-8ko lotunea Errenteria	Frantzia
A-15	Nafarroa-Gipuzkoa autobia	139,7 Nafarroa	156,560 N-leko lotunea	Andoain
AP-1	Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidea	102,700 Etxabarri-Ibiñako ordainlekua	146,150 Maltzagako lotunea AP- 8rekin	Irun
A-1	Madril-Irun	321,4 Burgos	329 Trebiñu	Vitoria-Gasteiz
A-1	Madril-Irun	336 Trebiñu	352 N-622 lotunea	Vitoria-Gasteiz
N-I	Madril-Irun	405,450 Nafarroa (Etzegarate)	454,470 AP-8/AP-1eko lotunea Lasarte-Oria	Frantzia
GI-636	Errenteria-Irun (lehengo N-I)	0 GI-20 lotunea Pasaia	17,235 Behobia	Frantzia
GI-11	Lasarte-Donostia (lehengo N-IA)	0 N-leko lotunea	2,523 GI-20 lotunea	Donostia / San Sebastián
N-121A	Behobia/Nafarroa	68,460 Nafarroa	75,020 Behobia	Frantzia

III. ERANSKINA

SALGAI ARRISKUTSUAK

1.– Beti eta salbuespenik eskatu beharrik gabe:

Salgaiak	Garraiatzeko baldintzak
– Etxeetarako gas likidotuak, botiletan sartuak nahiz zisternetan, bai banaketa–guneetara eramateko, baita kontsumitzaileei banatzeko ere	– ADRn ezarritakoak.
– Gasolindegia hornitzeko gaiak.	– ADRn ezarritakoak.
– Errepide–garraioko ibilgailuak hornitzeko erregaiak kontsumo propioko zentroetara zuzenduta	– ADRn ezarritakoak.
– Trenbide–garraioa hornitzeko erregaiak	– ADRn ezarritakoak.
– Itsasontziak eta aireontziak hornitzeko helburua duten portuetara eta aireportuetara zuzendutako erregaiak.	– ADRn ezarritakoak.
– Etxeko berogailuetarako gasolioak.	– ADRn ezarritakoak.
– Osasun zentroek funtzionatzeko beharrezkoak dituzten gasak eta partikularrei etxean osasun–laguntza emateko garraiatzen zaizkien gasak, baita, helburu berarekin, banaketa–biltegiara eramaten direnak, baina beti egiaztatu behar da garraioaren helburua hori dela.	– ADRn ezarritakoak.

2.– Salbuespena eskatu eta justifikatzen bada.

Salgaiak	Garraiatzeko baldintzak
– Industria–guneen funtzionamendurako behar–beharrezkoak diren salgaiak.	– ADRn ezarritakoak eta baimena ematerakoan agintzen direnak.
– Osasun–etxeetatik ateratzen diren edo haietan sartzen diren produktuak, 1. atalean jasota ez daudenak.	– ADRn ezarritakoak eta baimena ematerakoan agintzen direnak.
– Portuetara zein portuetatik eta aireportuetara zein aireportuetatik garraiatzen diren salgai arriskutsuak, nahitaez debekatutako egunetan zirkulatu behar badute.	– ADRn ezarritakoak eta baimena ematerakoan agintzen direnak.
– Pirotekniako materialak.	– Baimena ematerakoan agintzen direnak.
– Beste edozein gai, salbuespenezko kasuetan garraiatzea nahitaezkoa bada.	– Baimena ematerakoan agintzen direnak.

IV. ERANSKINA

SALGAIAK ORO HAR

Beti eta salbuespenik eskatu beharrik gabe:

- Animaliak bizirik garraiatzeko.
- Azokak, erakusketak, ikuskizunak eta bestelako ekitaldiak (kirol, kultura, hezkuntza edo politika arlokoak, alegia) instalatzeko zama-ibilgailuak.
- Soil-soilik prentsa garraiatzen dutenak.
- Posta eta telegrafoak garraiatzen dituztenak.
- Ikus-entzunezko komunikabideen unitate mugikorrek garraiatzen dituztenak.
- Garraiatzen diren salgaiak herriz herri saltzeko bereziki egindako ibilgailuak.
- Larrialdietarako ibilgailuak.
- Hutsik datozen ibilgailuak, aurretik aipatutako garraio-motei lotuta.
- Errepidean laguntza-zerbitzua emateko garabiak (V-24 seinalea), bakar-bakarrik beren basetik gertakariaren lekura joateko edo ibilgailua istripuaren lekutik edo matxuratuta dagoen lekutik ibilgailua utzi behar den lekura eramateko eta basera hutsik itzultzeko.
- Laguntza-ibilgailuak, edo premia-premiazko zerbitzuen oinarriko instalazioetan konpontze-lanak egiteko beharrezko materiala garraiatzeko ibilgailuak (linea elektrikoa, gas, urak, telefonia, komunikaziotarako zuntz optikoa).
- Negualdian, errepideen bidezaintza mantentzeko material urtugarriak garraiatzen dituzten ibilgailuak.
- Zerbitzu-makina autopropulstatuak eta garabi jasotzaileak, gertakaria izan den lekuan presaz eta berehala agertu behar den kasuetan, zerbitzua zirkulazio baimen osagarri bati lotuta dagoenean, eta ezinbestekoa da baimen horietako baldintzetan jasota dagoen abisatzeko betebeharra betetzea.
- Salgai galkorrak erregulatuko tenperaturan garraiatzea, salgai galkorren garraioari buruzko nazioarteko Akordioaren (ATP) 3. eranskinean ezarritakoaren arabera, baita fruta eta barazki freskoak ATPren I. eranskinean adierazitako arauekin eta definizioekin bat datozen ibilgailuetan garraiatzea ere. Hala ere, salgai galkorrak gutxienez izan behar dira ibilgailuak karga erabilgarrirako daukan edukieraren erdia edo ibilgailuak karga erabilgarrirako daukan bolumenaren erdia bete behar dute.


2024ko martxoaren 4a, astelehena

V. ERANSKINA

SALGAI ARRISKUTSUETARAKO IBILBIDEEN SAREA (SAIS)

Salgai arriskutsuen garraioa oro har

Bidea	Ibilbidea
AP-8	0 KP (Behobia) / 106 KP (A-8/N-240 El Gallo lotunea)
AP-8 (MHS)	112,840 KP. (A-68 lotunea Venta Alta) / 129 KP (N-644 Portua lotunea)
A-8	106 PK (AP-8/N-240 El Gallo lotunea) / 110,5 (A-8/BI-625 Basauri lotunea)
A-8	126,5 PK (A-8 Valle de Trápaga-Trapagaran lotunea) / 139,2 PK (Cantabria)
BI-10 (lehengo A-8)	122,5 (BI-30 Gurutzeta lotunea) / 126,5 (enlace A-8 Valle de Trápaga-Trapagaran)
BI-30 (lehengo N-637)	8 KP (A-8 lotunea Gurutzeta) / 28,8 KP (AP-8 lotunea Erletxes)
AP-68	2,2 KP (AP-8 lotunea Venta Alta) / 77,7 KP (Errioxa)
BI-625	382,6 KP (AP-68 lotunea) / 386,6 KP (A-8 lotunea)
N-622	4 KP (Vitoria-Gasteiz) / 23 KP (AP-68 lotunea Altube)
AP-1	77 KP (Burgos) / 83 KP (N-1 lotunea Armiñon)
A-1	321 KP (Burgos) / 329 KP (Trobiñuko muga, Armiñon)
A-1	336 KP (Trobiñuko muga, Iruña Oka) / 391 KP (Nafarroa)
N-1 / A-1	405,5 KP (Nafarroa, Etzegarate) / 454 KP (AP-8 lotunea)
A-15	139,8 KP (Nafarroa, Berastegi) / 156,56 KP (Andoain N-1eko lotunea)



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SALGAI ARRISKUTSUEN IBILBIDEEN SAREA

VI. ERANSKINA

2024. URTEAN ZEHAR, ZIRKULAZIOAREN EZAUGARRI BEREZIENGATIK ERREPIDEETAKO OBRAK ETETEA

2024rako aurreikusitako ibilgailuen joan-etorri masiboak eta trafikoko operazio bereziak direla-eta, Trafiko Zuzendaritza eta errepideen erakunde titularrak koordinatu egingo dira:

A) Eraginpeko eremuari eta zirkulazio-plataformari eragiten dieten obrak eteteko.

Noiztik		Noiz arte	
Eguna	Ordua	Eguna	Ordua
Martxoaren 27a	15:00	Martxoaren 28a	24:00
Apirilaren 1a	08:00	Apirilaren 1a	24:00
Ekainaren 28a	15:00	Ekainaren 29a	24:00
Uztailaren 24a	15:00	Uztailaren 25a	24:00
Abuztuaren 2a	15:00	Abuztuaren 3a	24:00
Abuztuaren 30a	15:00	Abuztuaren 31a	24:00
Azaroaren 1a	08:00	Azaroaren 1a	24:00
Abenduaren 5a	15:00	Abenduaren 6a	24:00
Abenduaren 8a	08:00	Abenduaren 8a	24:00

B) Zirkulazio-plataformari eragiten dioten obrak eteteko:

Asteburuetan, ostiraleko 15:00etatik igandeko 24:00etara, errepideen erakunde titularrek justifikatutako arrazoiengatik berariaz besterik jakinarazi ezean.